

## Kanalak

Gure aplikazioa zabaltzeko sare sozialak erabiliko ditugu, izan ere, gure aplikazioa ikaslaeentzat dago zuzenduta, hau da, jende gaztearentzat, eta gaur egungo gaztediak asko erabiltzen ditu twitter, instagram, tik-tok...

Horretaz gain, gure aplikazioa erabiltzeko bi modu egongo dira: batetik, aplikazioa mugikor edo tablet batean deskargatuz eta, bestetik, web-bertsioa erabiliz, hau da plataformara web-orritik sartuz, beraz, gure distribuzio kanalak “play store” eta “app store” mugikor eta tabletentzako dendak eta web-orriaren kasuan erosiko genukeen domeinua izango lirateke.



Amaitzeko, gure aplikazioa doakoa denez, diru-sarrerak lortzeko erabiliko genukeen kanal printzipala, publizitatea izango litzeteke, hau da, gure orrian sartzerakoan publizitatea egongo litzateke aldeetan eta aplikazioaren kasuan sartzerakoan iragarki bat aterako litzateke eta gero denbora bat igarotzean ( 15-20 min ) beste bat aterako litzateke, gainera, albo batean ere beste iragarki bat egongo litzateke. Horretaz gain, erabiltzaileek premium zerbitzu bat izango lukete iragarkiak kentzeko eta beste erabiltzaileek ikusi ahalko lukete pertsona hori “premium” dela; zerbitzu honen prezio hilean 0,50€ koa edota betirako edukitzeko 4,99€ izango litzateke.